

## VII. IGANDEA URTEAN ZEHAR (C)

### Otoitza

Jainko ahalguztiduna,  
egizu, zure erakutsiak beti gogoan erabiliz,  
hitzez eta egitez zure nahia bete dezagula.  
Zure Seme Jesu Kristo.

I. IRAKURGAIA: 1 Sm 26, 2. 7-9. 12-13. 22-23

*Jaunak gaur nire eskutan jarri zaitu;  
baina nik ez dizut eskurik erantsi nahi izan.*

Samuelen liburutik

Egun haietan, Zifko basamortura jaitsi zen Saul, hiru mila mutil israeldar aukeratuekin Dabiden bila.

Dabid eta Abisai iritsi ziren gauez etsaien txabolategira, eta han aurkitu zuten Saul lo, gurdien erdian etzanda, bere buru ondoan lantza lurrean sartua zeukala. Abner eta gudariak ere lo zeuden, haren inguruan etzanda. Orduan Abisai honela mintzatu zitzaion Dabidi: «Jainkoak gaur eskutan jartzen dizu zure etsaia. Utz iezadazu lantzakada batez lurrari josten; ez du beharko bigarrenik». Dabidek, ordea, Abisairi: «Ez hil! Ez baitaiteke zigorrik gabe gelditu Jaunaren gantzutuari erasten dionik».

Orduan Dabidek hartu zituen Saulen buru aldetik lantza eta urontzia, eta joan egin ziren. Ez zituen inork ikusi, ez zen inor ohartu; ezta esnatu ere; denak lo zeuden, Jaunak lo astuna bidali zien eta.

Dabid beste aldera joan zen, eta han urruti gelditu mendi gailurrean, Saulengandik tarte haundia zuela. Handik Dabidek oihu egin zuen: «Errege, hona hemen zure lantza. Bidal ezazu mutil bat honen bila. Jaunak ordainduko dio bakoitzari egin duen zuzena eta leiala. Jaunak gaur nire eskutan jarri zaitu; baina nik ez diot eskurik erantsi nahi izan Jaunaren gantzutuari».

ERANTZUN SALMOA: Sal 102, 1-2. 3-4. 8 eta 10. 12-13

**R/. Errukior da Jauna eta kupibera.**

Ene arima, goretsazu Jauna,  
neure barren osoak Haren izen deuna.  
Ene arima, goretsazu Jauna,  
eta ez ahaztu Hark zuri egina. R/.

Hark barkatzen baititu zure hobenak,  
 sendatzen zure gaitzak denak;  
 begiratzen du heriotzatik zure bizia,  
 ematen dizu buruntzat grazia eta errukia. R/.

Errukior da Jauna eta kupibera,  
 berant-haserre eta guztiz onbera.  
 Ez dihardu gurekin gure hobenen neurrira,  
 ez digu ordaintzen geure erruen harira. R/.

Sortalde-sartaldeak urrun baitaude elkarrengandik,  
 hain urrun bidaltzen ditu gure gaiztakeriak gugandik.  
 Aita bere seme-alabetaz errukitu ohi den bezala,  
 beldur diotenentzat errukidun da Jauna. R/.

II. IRAKURGAIA: 1 Ko 15, 45-49

*Lurrekoaren antza daramagun bezala,  
 eramango dugu zerukoarena ere.*

San Paulo Apostoluak Korintotarrei

Senideok: Lehenengo gizona, Adan, bizidun egina izan zen; azkenengo Adan, espiritu biziemailea da.

Ez da espiritua lehenengo azaltzen dena, bizia baizik; eta gero espiritua. Lehenengo gizona, lurretik, lurrekoa da; bigarrena, zerutik dator. Lurreko hura nolako, lurrekoak halako; eta zeruko hura nolako, zerukoak halako.

Beraz, lurrekoaren antza daramagun bezala, eramango dugu zerukoarena ere.

EBANJELIOA: Lk 6, 27-38

**Aleluia:** Ik. Jn 13, 34

R/. Aleluia.

V/. Agindu berri bat ematen dizuet —dio Jaunak—:

Maita ezazue elkar,

Nik maite izan zaituztedan bezala. R/.

*Izan zaitezte errukiorrak,  
 zuen Aita errukiorra den bezala.*

Jesu Kristoren Ebanjelioa San Lukasen liburutik

Aldi hartan, Jesusek honela esan zien bere ikasleei: «Hau diotsuet Nik entzuleoi: maita itzazue zeuen etsaiak; egin on, gorroto dizuetenei; bedeinka, madarikatzen zaituztenak; egin otoitz, gaizkiesaka ari zaizkizuenentzat.

Masail batean jotzen zaituenari, eskain iezaiozu bestea ere; eta zure soingainekoa kentzen dizunari, ez uka jantzia.

Eskean datorkizunari, emaiou; zeurea kentzen dizunari, ez itzulerazi; egin besteei, haiek zuei egitea nahi zenuketen bezala. Maite zaituztenak maite izanik, zer eskerron zor zaizue? Bekatariek ere maite dituzte beren maitatzaileak. Eta on egiten dizuetenei on eginik, zer eskerron zor zaizue? Bekatariek ere egiten dute beste horrenbeste. Ordaina hartzekotan aurreraturik, zer eskerron zor zaizue? Bekatariek ere aurreratzen diete bekatariei, gero ordaina hartzekotan.

Zuek, ordea, maita itzazue zeuen etsaiak; egin on eta aurreratu, ordainaren zain egon gabe; eta zuen saria haundia izango da, eta Goigoikoaren seme eta alaba izango zarete; Bera ere ona baita gaiztoekin eta esker txarrakoeekin..

Izan zaitezte errukiorrak, zuen Aita errukiorra den bezala.

Ez epaitu, eta ez zaituzte epaituko; ez gaitzetsi, eta ez zaituzte gaitzetsiko; barka ezazue, eta barkatuko zaizue; eman, eta emango zaizue: neurri zabala botako zaizue altzora, eta betea, eragina, gainezkakoa. Zeuek erabiltzen duzuen neurriz izango zarete neurtuak».

### **Oparigaien gainekoa**

Zure misterioa bihotz berriz ospatuz, Jauna,  
apalik eskatzen dizugu:  
zure haunditasunaren osperako eskaintzen duguna  
gure salbamenerako izan dadila.  
Jesu Kristo.

### **Jaunartze ondorengoa**

Jainko ahalguztiduna, Meza honetan  
gure salbamenaren agiria eman diguzu;  
egizu, egunen batetan salbamen hori  
bere betean irits dezagula.  
Jesu Kristo.